BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

PRENTSARAKO OHARRA
2019/06/02

# Adar-hotsa entzun da barriro Ganekogortan ehunka mendizaleren aurrean, Batzar Nagusietarako beste deialdi baten

Ehunka mendizale batu dira gaur Deiadar Mendien Egunaren aurtengo edizinoan, eta Batzar Nagusietarako dei tradizionalaren lekuko izan dira. Bost urte itxaron behar izan da Ganekogortako tontorrean barriro adar-hotsa entzuteko. Mendi hori "deiadar-mendi" izentau eban Antonio Trueba Bizkaiko Jaurerriko artxibozainak (Gorbeia, Oiz, Kolitza eta Sollubegaz batera), eta horregaitik egin da bertatik Batzar Nagusietarako deia. Ondoren, jaialdi bat egin da Pagasarriko zelaietan, jende asko eta asko batu dauena, eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria eta beste batzarkide batzuk be izan dira bertan.

Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatu daben ibiltaldi hau goizeko 8etan hasi da Kobetamendin (198 m). Parte-hartzaileek ohikoa ez dan beste bide bat hartu dabe Pagasarrira igoteko, asteburuero bertara joaten diran ehundaka bilbotarrek erabili ohi ez dabena. Pagasarrin ezarri da lehenengo hornidura-gunea. Zeozer jan eta edan ostean, Bilboko tontor mitikotik Ganekogortako tontorrera (998 m) igon dabe, eguerdiko 12etan adarrak joteko tradizinoa leialtasun osoz beteteko.

Tontorrean adar-hotsa entzun ostean, Pagasarriko zelaietara aldatu da jai-giroa, eta bertan ez dira faltau musikea (Bilbao Musikako trikitilariak eta Lur Soinuak musika-eskolako txalapartariak), dantzak (Goialde dantza-taldea), antzerkia (El Gran Rufus), bertsolariak (Algortako Bertsolari Eskola), indarrak barriztatzeko kopau bat (Errekaldeko Peñascal Taldea kooperatiba), eta igoera osoa egin dabenei emon jaken oparia.

Ehunka pertsonak gozau dabe mendiko ibiltaldi herrikoien artean daborduko klasiko bilakatu dan jardunaldi berezi honegaz, eta, euren artean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria eta Jon Andoni Atutxa, Kontxi Claver, Aitor Ibarra eta Oscar Arana batzarkideak izan dira.

Aurten, Bilboko Gailurra mendi-taldea arduratu da kirol-igonaldiaz, eta, ohitureari jarraiturik, gaur lekukoa emon deutso Lemoako Ganzabal mendi-taldearen ordezkariari, talde horrek antolatu daian Deiadar Mendien Egunaren hurrengo edizinoko ibiltaldia, datorren urtekoa Gorbeian izango da-eta.

**Deiadar Mendien XVI. Eguna**
Gaurko datu batzuk:
· Egindako distantzia: 22 km -> Kobetamendi-Pagasarri-Ganekogorta-Pagasarri-Kobetamendi
· Desnibel metatua: +/- 910 m
· Ibiltaldiaren iraupena: 6 ordu (geldialdi barik)

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros

NOTA DE PRENSA
02/06/2019

# El sonido del cuerno resuena en el Ganekogorta ante cientos de "mendizales" en una nueva convocatoria a Juntas Generales

Cientos de aficionados a la montaña han sido testigos hoy de la tradicional llamada a Juntas Generales en una nueva edición del Día de los Montes Bocineros. Han sido cinco años de espera para volver a oír el sonido del cuerno en la cima del Ganekogorta, una de las cumbres declarada "bocinera" por el cronista y archivero del Señorío de Vizcaya, Antonio de Trueba, al igual que el Gorbeia, Oiz, Kolitza y Sollube. Las campas del Pagasarri han acogido después una fiesta multitudinaria que ha contado con la presencia de la Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, y de otros representantes de la Cámara vizcaína.

La marcha, organizada por las Juntas Generales de Bizkaia, se ha iniciado a las 8 de la mañana desde Kobetamendi (198 metros). Los participantes han ascendido a la cima del Ganekogorta (998 metros) por otra vía diferente a la que utilizan cientos de bilbaínos y bilbaínas todos los fines de semana para llegar al Pagasarri, punto donde se ha situado un primer avituallamiento. Desde la mítica cumbre bilbaína se ha ascendido al Ganekogorta para cumplir fielmente con la tradición de tañir los cuernos a las 12 del mediodía.

Tras el sonido de los cuernos en la cima encartada, la jornada festiva se ha trasladado poco después a las campas del Pagasarri, donde no han faltado música (a cargo de las trikis de Bilbao Musika y la txalaparta de Lur Soinuak), danzas (Goialde Dantza Taldea), teatro (El Gran Rufus), bertsolaris (Algortako Bertsolari Eskola), un pequeño aperitivo reponedor de fuerzas (Cooperativa Grupo Peñascal de Rekalde), y un regalo para quienes han completado la ascensión completa.

Cientos de personas han disfrutado de una jornada especial que se ha convertido ya en un clásico de las marchas populares al monte. Entre ellas, se encontraba la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, y representantes del Parlamento vizcaíno como Jon Andoni Atutxa, Kontxi Claver, Aitor Ibarra y Oscar Arana.

Como es tradición, el club de montaña Gailurra de Bilbao, encargado de la ascensión deportiva de este año, ha cedido el testigo a un representante del club Ganzabal de Lemoa, entidad que se encargará de la organización de la marcha de una próxima edición del Día de los Montes Bocineros, que está prevista se celebre el año que viene en el Gorbeia.

**XVI edición del Día de los Montes Bocineros**
Algunos datos de hoy:
- Distancia recorrida: 22 km -> Kobetas-Pagasarri-Ganekogorta-Pagasarri-Kobetas
- Desnivel acumulado: +/- 910 metros
- Duración de la marcha: 6 horas (sin paradas)